

e) *"La xiriga" euskal hitzak asturiasko hizketan:*

M. Zarate jaunaren txostena, "La xiriga" auntz-erdera delakoari buruz. Asturiasko eskualde baten erabiltzen den hizkuntza edo mintzaera, Euskarazko hitz eta forma asko ditu eta hauen adibideak ematen ditu. Horrez gainera, handik Bizkaira joan-etorritzko, inmigrazio eta emigrazioen berri ere ematen du, eta, azkenik, azterketak jarraitzeko asmoa agertzen du.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-IV-25

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko apirilaren 25ean, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, E. Erkiaga, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; J. F. Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, X. Gereño, J. L. Lizundia, J. Zaitegi eta A. Zatarain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Davant, Diharce, Larzabal eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Martxoko agiria onartu da.

a) *Har-emanak:*

Eusebio Erkiaga diruzainak 1975eko urtarrila, otsaila eta martxoko diru kontuen berri ematen du. Era orokarrez, denera: zegoena, 119.346,05 pezeta; gehitua, 456.439,52; urritua, 300.204,19; *dagoena, 275.581,36 pezeta*. Banku eta kuxetan dirua nola dagoen banaturik, eta sarrerren eta urritzeen zertzeladarik aipagarrienen berriak.

A. Zavala jaunak, gutunez, Gipuzkoako Pilotari Federazioak, pilota gaiez jartzen duen bertso-paper sariaren berri ematen du, sariketa arautegia aurkeztuaz eta epai-mahaia izendatze eskariaz. Epai-mahaiko hauek izendatzen dira:

A. Irigoyen, E. Larre, J. M. Aranalde, Etxezarreta Debako apaiza eta J. M. Iriondo jaunak.

Irakasle titulurako esaminetarako tokia eta aukera ego-
kia eman diguten Arrasateko Poloteknik Ikastegiko zuzenda-
ritzakoei eskerrak ematea erabaki da: Jabier Retegi zuzenda-
riari, Jose M.^a Arizmendiarrieta, Felix Ormaetxea Colegio
Menor Viteri-ko zuzendariari eta Xabier Zubizarreta eta bere
laguntzaileei.

Bertsolari txapelketa antolatzeaz hitz egin da, baina hon-
tarako aurkitzen diren era askotako eragozpenak ikusirik,
oraingoz uztea pentsatu da.

Gipuzkoan, euskararen irakaskintzan ari direnak, beren
arteko har-eman eta koordinatzerako Gau Eskola Elkarte ize-
neko erakundea sortu dute eta Euskaltzaindiaren babesa
eskatzen dute. Onartzen da, baina datorren batzarrerako pre-
sentazio gisa beren asmoak idatziaz ematea eskatzen zaie, eta
urtearen bukaeran beren ekintzaren memoria laburra.

Irailaren 22tik 27ra maisu euskaldunentzat kursiloak eta
esaminak antolatzea erabaki da, Iruñean.

Haritschelhar jaunak aditzera ematen du, aurten III.
Udarako Euskal Unibertsitatea Uztaritzeko Landagoien
etxean izanen dela.

Emile Larre jaunak, bere sarrera hitzaldia irailaren 28an
eginen du, Aiherra herrian, eta J. Haritschelhar jaunak eran-
tzungo dio.

Aita Joanes Chabagno idazle eta euskaltzain laguntzailea-
ren hil-berria. J. Haritschelhar jaunak irakurtzen du P. Lafit-
te jaunak idatzi duen oroimen laburra, Chabagno zenaren
nortasuna eta lanak aipatuz. 93 urtekin hila da, apaiz misio-
lari eta euskal idazle, bere sorterri inguruko Kintoari buruzko
estudio baten egilea. G. B.

Hartu diren liburuak:

Arabako Consejo Foral de Cultura-k emana, Gerardo Ló-
pez de Guereñu-ren *Botánica popular alavesa*; eta "Elhuyar"
aldizkariaren bigarren zenbakia.

b) *Goizeko bilkuraren berri:*

1975eko EUSKERA hornitzeko lanak hautatu dira.

Ikastola Hiztegiaren 16 eta 17garren zerrendak onartu dira, hartu diren oharrak aztertu ondorean.

d) *Toribio Iriondo elgoibartarra (1848-1922), "Ogi Zerutik" eta beste zenbait kantaren egilea:*

J. San Martinek irakurri du Toribio Iriondo Sasiain elgoibartarrari buruzko txostena, "Ogi Zerutik" kantaren egilezat agertuaz eta horrez gainera egin zituen kanta eta hizlauruko zenbait lanen berri. Inoiz "Irisasi" izenordez argitaratu zituen bere lanak. 1881etik 1912ra bitartean "Euskal Erria" Aldizkarian kolaboratu zuen eta bere lanik gehienak hor aurkitzen dira, baina horrez gainera beste zenbait aldizkaritan ere sakabanaturik daude eta hoi en berri ere ematen du. Gainera, biltzaile bezala, Azkuerentzat kantak eta ipuiak jaso zituen. Eta erlijio liburuxka hauen egilea da: *Misterioric aundienen oroipengarri chiquia* (1889), *San Juan Bautistaren bederatzi-urrena* (1892), eta Patrizio Orkaiztegiarekin elkar lanean *Jesus eta Mariaren billeracoentzat itz neurtuac* (1881). 1904an Aita Astete-ren dotrina berak gipuzkeratua. Hoiez gainera, San Martinen iritziz, 1893an egile izenik gabe Tolosan argitaratu zen *Misio Santubetaraco Jesus gure Jau-nari eta Ama Birjiñari cantubac* izeneko liburuxka ere T. Iriondorena izan behar du, eta honez gainera beste zenbait xehetasun agertzen ditu, idazle honen alde gure literaturaren historian toki berezi bat eskatuaz.

e) *Musika gaietazko hiztegi bati buruz:*

Xabier Gereñoren txostena. Euskal Herriko Txistularien Elkarteak aspalditik nabari zuen hutsaren hornigarri gertatutako hiztegia, txistua jotzen ikasteko beharrezkoa, eta Elkar-teak, bertako batzordeko eta gure laguntzaile den partez X. Gereñori eskatua. Hain zuzen, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzaz laster argitaratzeko diren txistu irakaskintza libu-ruxka baterako, eta batez ere ikastoletan zabaltzeko. Aintzitik J. J. Iruretagoyenak eta L. Elizaldek hontaz eginak zituzten lanak kontuan izan ditu, eta honez gainera, inkesta bidez, J. L. Alvarez Enparantza, X. Kintana, L. Mitxelena eta J. A. Arana Martija jaunaren iritziak jasoak ditu, Iñaki Arrarte txistulariak proposatuekin osatuz. Erdarazko hitza, aipatuta-ko jaun horiek proposatuak eta X. Gereño berak hautatuak,

hitzok banan bana irakurri ditu. Berrogetahamazortzi hizdun zerrenda. Egin zaizkion oharrez zenbait ikutu ondorean onartzen da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-V-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko maiatzaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak: F. Artola, J. Berrojalbiz, J. Fernández Setien, J. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, A. Zatarain, J. Zaitegi eta J. M. Zumalabe laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Haritschelhar, Larzabal eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko agiria onartu da.

a) *Har-emanak*:

Idazkariak, aditzera eman du, igaztik tratuetan ginen euskararen sozio-linguistikazko estudio sakon bat bideratzeaz, hil honen 22an tratua loturik gelditu dela Euskaltzaindia, Siadeco eta Lankide Aurrezkiaren artean. Honek jartzen dituela lau miloi eta berrehun mila pezeta Siadeco gure babespean eta zuzendaritzapean bi urteren epean lana burutzeko. Lan hau, bere sakontasunean, Euskaltzaindian orain arte egin duenik garrantzizkoena izango dela gure hizkuntzaren egizko egoera zehatz aztertzeko eta hobekuntzen bideak irekitzeko. Kontratua lotzen duten lau folioak irakurri ditu. Kondizioak izenpetzen dituztenak, Euskaltzaindiaren partetik: L. Villasante, J. San Martin eta J. L. Lizundia; Lankide Aurrezkiaren (Caja Laboral Popular): Jabier Erdozia; eta Siadeco-ren partetik: Jabier Agirre jaunak. Oraindik lana